

# ALGUNAS REFLEXIONES SOBRE OKUPACIÓN, RACISMO Y GUERRA ENTRE POBRES



Ante los ataques del mes de octubre contra la práctica de la okupación, como defensoras y practicantes de la misma entendemos que los hechos de Ezkerraldea están generando discursos que son especialmente preocupantes por **clasistas y racistas**:

## 1 CRIMINALIZACIÓN DE LA OKUPACIÓN

-Vivimos desde hace décadas una crisis económica y social profunda, en la que la **brecha entre ricos y pobres** es cada vez mayor. Con los indicadores del **empobrecimiento colectivo** en una mano (los desahucios, gente en la calle, salarios a la baja) y la **renta inmobiliaria** en la otra (VPOs para la clase media, alquileres abusivos, pisos turísticos, acumulación de capitales, fusiones de bancos, corrupción en instituciones...) queda claro el carácter de *clase* de la okupación.

-Quienes okupamos lo hacemos por responder a una necesidad básica y ejercer un derecho que se nos niega o también como herramienta política de denuncia y sabotaje contra la **especulación salvaje** y contra el mercado inmobiliario. Y cuando el PNV, el PP, Ciudadanos y todos los adinerados vascos y españoles, junto a sus grandes **medios de comunicación** a sueldo **atacan a la Okupación, están criminalizando el contrapoder de los pobres** en nombre de las grandes inmobiliarias y los bancos; en nombre de La Propiedad Privada.

## 2 RACISMO, GUERRA ENTRE POBRES

-Este ataque contra la okupación tiene **claros tintes racistas y xenófobos**, pues los hechos de Ezkerraldea han puesto en el foco público a personas de etnias minoritarias, a gente racializada y/o migrantes. Si fueran los grandes propietarios vascos y españoles (con 100 pisos por familia), los bancos y las grandes inmobiliarias, quienes intentaran echar a los okupas, la respuesta popular sería mucho más fácil: **capitalistas y especuladores que dejan en la calle a unas familias en nombre de su beneficio económico. Pero no es el caso, en este caso son vecinas y compañeras de luchas en otras tantas ocasiones, quienes hoy dan argumentos e imágenes poderosas al enemigo. Es la recurrente guerra entre pobres: y mientras tanto los que nos tienen hambrientas, se frotan las manos. Deberíamos cuidar más quien sufre las consecuencias de la instrumentalización de nuestros discursos y acciones.**

## 3 APOYO MUTUO vs PROPIEDAD

-Desde el movimiento de okupación apostamos por que se okupen casas y espacios abandonados (varios años); a poder ser de grandes propietarios, bancos o inmobiliarias. A la lógica de la propiedad, oponemos la lógica de la **colectivización. A la idea de seguridad ciudadana, le contraponemos la de comunidad. Okupar es apostar por autonomía, por lo colectivo, por apoyo mutuo entre vecinas del barrio/pueblo.**

-Sin embargo, ésta ética no es compartida por todas (okupas y no-okupas). Puede que haya vecinas que no respeten las *normas* de convivencia, y acaben generando problemas a la comunidad o el barrio donde viven. **Abrir casas donde efectivamente vive gente de clase trabajadora, especular con ellas o explotar a terceras en ellas, es carroñismo capitalista;** es lo mismo que hacen los bancos, las inmobiliarias o quienes alquilan pisos turísticos en barrios populares a precios de centro.

-Y esto no tiene nada que ver con la okupación. **Impresentables los hay de todos los tipos, okupas, propietarios y de alquiler.** Por ello, si **unas habitantes crean problemas a la comunidad y/o a la vida de barrio, no es porque sean okupas o porque sean personas racializadas, sino porque o bien responden al papel de "indeseables" que se les asigna socialmente y se les estigmatiza por ello, o alguien les paga para ello o saca provecho de ello. Ahí hay que mirar.**

## 4 PROBLEMAS ESTRUCTURALES, SOLUCIONES RADICALES


-No se puede hablar de derecho a la vivienda para todas y abolición de la especulación, sin hablar de precarización de la vida y explotación laboral. **Es lucha de clases.** Y **luchar es señalar** a las inmobiliarias que están haciendo **mobbing en Santurtzi** para edificar nuevos pisos con el nuevo PGOU; **es apuntar a los bancos y fondos buitres que desahucian familias para reformar barrios y colonizarlos con nueva gente de clase alta; es defendernos de los matones y nazi-fascistas de Desokupa; es tener claro que el PNV, PPSOE, C's, VOX o el PdCat se benefician de ésta polémica anti-okupa, alimentando los tintes clasistas y racistas del debate.**

Ante ello nosotras, todas las demás:


TODAS las vecinas proletarias de Ezkerraldea (sin distinción étnica o cultural); las que vivimos en los barrios populares; las que cuidamos viejos y limpiamos castillos en Neguri; las okupas que construimos comunidad cada día; las que sobreviven sin papeles ni derechos; las niñas de etnia gitana que se quedan sin compañeras de escuela porque les cambian a centros "menos problemáticos"; las que trabajamos todos los días o que luchamos por sobrevivir sin casa y/o sin trabajo,

**luchemos juntas para reapropiarnos del derecho a la vivienda y de nuestras vidas.**

**¡Reconstruyamos la solidaridad entre las desposeídas y dirijamos la rabia hacia arriba, contra explotadores, especuladores y su Propiedad Privada!**



# OKUPAZIO, ARRAZAKERIA ETA TXIROEN ARTEKO GERRAZ HAUSNARKETA BATZUK



Urrian zehar okupazioaren praktikaren aurka eman diren erasoen harira, okupazioaren defendatzaile eta praktikatzaileak garenok Ezkerraldeako gertakariak sortu dituzten diskurtsoak bereziki larriak iruditzen zaizkigu **klasistak eta arrazistak** direlako:

## 1 OKUPAZIOAREN KRIMINALIZAZIOA

-Azken hamarkadetatik hona krisi ekonomiko eta sozial sakona bizi dugu. **Aberatsen eta txiroen arteko arrakala** gero eta zabalagoa da. **Txirotze kolektiboaren** adierazleak esku batean (etxegabetzeak, kalean dagoen jendea, beheranzkoan dauden soldadak) eta **higiezin errenta** bestean (klase ertainarentzako BOEak, gehiegizko alokairuak, pisu turistikoak, kapitalen metatzea, banketxeen fusioak, instituzioen ustelkeria...), argi dago okupazioaren *klase* izaera.

-**Okupatzen dugunok** oinarrizko behar bati erantzuteko eta ukatzen zaigun eskubide bat aurrera eramateko okupatzen dugu, edo espekulazio basatiaren eta higiezin merkatuaren aurkako **salaketa eta sabotai tresna politiko moduan** okupatzen dugu. **Eta PNVk, PPK, Ciudadanosek** eta gainerako euskal edo espainiar dirudunek, beraien soldatapeko **komunikabide handiekin** batera, **Okupazioa erasotzen dutenean, txiroen kontraboterea kriminalizatzen ari dira** higiezin agentzia eta banketxe handien izenean, Jabetza Pribatuaren izenean.

## 2 ARRAZAKERIA, TXIROEN ARTEKO GERRA

-Okupazioaren aurkako eraso horrek **ñabardura arrazista eta xenofobo argiak** ditu. Izan ere, Ezkerraldeako gertakariak gutxiengo etnikoetakoak, arrazializatutakoak edo migratzaileak diren kideak jarri dituzte afera publikoaren erdigunean. Familiako 100 etxebizitza dituzten jabe handi euskaldun edo espainolak, higiezin agentziak edo banketxe handiak izango balira okupak botatzen saiatzen direnak, erantzun herrikoia askoz errazagoa izango litzateke: kapitalistak eta espekulatzailak familiak kale gorrian uzten beraien etekin ekonomikoaren mesedetan. Baina egoera ez da hori. **Oraingoan auzokideak eta beste batzuetan borrokakide direnak dira etsaiari argudio eta irudi boteretsuak eman dizkietenak. Txiroen arteko gerra errepikakorra da:** bitartean, gosetuta gauzkatena lasai askoan geratzen dira. **Gehiago zaindu beharko genuke gure diskurtso eta ekintzen instrumentalizazioaren ondorioak pairatzen dituztenak.**

## 3 ELKARBABESA vs JABETZA

-Okupazio mugimenduan urteetan abandonatutako etxebizitza eta espazioak okupatzearen alde gaude. Ahal dela jabe handienak, banketxeenak edo higiezin agentzienak. *Jabetzaren logikari kolektibizazioaren logika kontrajartzen diogu. Hiri segurtasunaren ideiarri komunitatearena kontrajartzen diogu.* **Okupatzea autonomiaren, kolektiboaren, auzoko/herriko auzokideen arteko elkarbabesaren alde egitea da.**

-**Hala ere, etika hori ez da guztiona (okupak izan ala ez).** Baliteke elkarbizitza *arauak* errespetatu ez, eta komunitateari edo auzoari arazoak eragin diezazkioketen auzokideak egotea. **Langile klaseko jendea benetan bizi den etxeak zabaltzea, haiekin espekulatzeari, edo etxebizitza horietan hirugarrenok esplotatzea sarraskeria kapitalista da;** banketxeek, higiezin agentziek edo auzo herrikoietan pisu turistikoak erdiguneko prezioetan alokatzen dituztenek egiten duten berdina da.

-Eta horrek ez du okupazioarekin zerikusirik. **Nazkagarriak leku guztietan daude: okupak, jabeak edo maizterrak.** Hori dela eta, **bizilagunen batzuek komunitateari edo auzo bizitzari arazoak sortzen badizkiete,** ez da okupak edo pertsona arrazializatuak direlako; baizik eta **sozialki ezarri zaien "jendilaje" rolari erantzuten diotelako, eta horregatik estigmatizatuak dira, edo norbaitek horrela joka dezaten ordaindu dielako edo hortik etekin ateratzen duelako.** Horri erreparatu behar zaio.

## 4 ARAZO ESTRUKTURALAK, KONPONBIDE ERRADIKALAK

- Ezin da guztiontzako etxebizitza eskubideaz eta espekulazioa deuseztatzeaz hitz egin, bizitzaren prekarizazioaz eta lan esplotazioaz hitz egin gabe. **Klase borroka da.** Eta **borrokatzea da:** HAPO (Hiri-Antolakuntzaren Plan Orokor) berriaren barruan etxebizitza berriak eraikitzeke **Santurtzin mobbinga** egiten ari diren higiezin agentziak seinatzea; auzoak eraberritzeko eta klase altuko jendearekin kolonizatzeke **familiak etxegabetzen dituzten banketxe eta funts putreak begiz jotzea; matoi eta Desokupako nazi-faxistengandik babestea;** argi edukitzea **PNV, PPSOE, C's, VOX** edo PdCatek okupen kontrako polemikari **etekina ateratzen diotela eztabaidaren ñabardura klasistak eta arrazistak elikatzearen bidez.**

Horren aurrean guk, gainontzeko guztiok:

**Ezkerraldeako bizilagun proletario GUZTIAK (etnia edo kultura bereizkeriarik gabe);** auzo herrikoietan bizi garenok; Negurin nagusiak zaindu eta gazteluak garbitzen ditugunok; egunero komunitatea sortzen dugun okupok; eskubiderik eta paperik gabe bizirauten dugunok; eskolakideak ikastetxe "ez hain problematikoetara" aldatzen dituztelako lagunak gabe geratzen garen neskato ijitook; asteko egun guztietan lan egiten dugunok edo etxerik edo lanik gabe bizirauteko borrokatzen dugunok.

Elkarrekin borroka dezagun etxebizitza eskubideaz eta gure bizitzaz berjabetzeko.

Desjabetuen arteko elkartasuna berreraiki dezagun eta zuzen dezagun gorrotoa gorantz, esplotatzaile, espekulatzaila eta haien Jabetza Pribatuaren kontra!